Bestelako Xedapenak

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

4768

EBAZPENA, 2010eko irailaren 23koa, Funtzio Publikoko zuzendariarena, interesdun izan daitezkeenei epea jartzen diena, alderdi bezala ager daitezen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan jardundako 773/10 prozedura arruntean.

Ebazpen honen bidez argitara ematen da Funtzio Publikoko zuzendariak 2010eko irailaren 23an ebazpena eman duela non xedatu den Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salari bidal dakiola honako prozedurari buruzko espediente administratiboa:

773/10 prozedura arrunta: Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko apirilaren 16ko Aginduaren aurka Miren Idoia Urrutia Ortiz de Cosca andreak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Aurkaturiko Agindu horretan, hain zuzen, EAEko Administrazio Orokorreko Administrari Laguntzaileen Kidegoko karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesurako deialdia egin zen.

Prozedura horrek eragina izan dezake lehen esandako hautaketa-prozesuaren ebazpenean.

Horregatik guztiagatik, eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen Legeak, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak emandako idazkeran, 49.1 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

1.– Aipatutako espedientean interesdun izan daitezkeenei bederatzi eguneko epea jartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean lehenago esandako prozeduretako alderdi bezala aurkezteko aukera izan dezaten.

2.– Honako hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 23a.

Funtzio Publikoko zuzendaria,
M.ª LUISA CUESTA ARANDILLA.

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

4768

RESOLUCIÓN de 23 de septiembre de 2010, de la Directora de Función Pública, por la que se emplaza a los posibles interesados en el Procedimiento Ordinario 773/10 seguido ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco a fin de que puedan personarse como parte en el mismo.

En virtud de esta Resolución se hace publico que la Directora de Función Pública, con fecha de 23 de septiembre de 2010 ha dictado Resolución por la que se dispone la remisión a la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco del expediente administrativo relativo al siguiente procedimiento:

Procedimiento Ordinario 773/10: recurso contencioso-administrativo interpuesto por Miren Idoia Urrutia Ortiz de Cosca contra la Orden de 16 de abril de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública por la que se convocó el proceso selectivo para el ingreso como funcionario de carrera del Cuerpo Auxiliar Administrativo de la Administración General de la CAPV.

Este procedimiento puede afectar a la resolución del proceso selectivo anteriormente referido.

Por ello, de conformidad con lo preceptuado en el artículo 49.1 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contenciosa-Administrativa, redactado por la Ley 29/1998 de 13 de julio.

RESUELVO:

1.– Emplazar a los posibles interesados en el referido expediente para que puedan comparecer en el plazo de nueve días ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco y personarse como parte en los procedimientos antes citados.

2.– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, 23 de septiembre de 2010.

La Directora de Función Pública,
M.ª LUISA CUESTA ARANDILLA.